

Ereintzaren 50. urteurrenean

Naroa Pérez

Jesusen Bihotzaren anaidiko fraileen artean ideia bat sortu zen duela 50 urte: ikasle eta ikasle ohiak, kultur eta kirol kutsua zuen elkarte batean biltzekoa. Baina berehala, ikasle izan ez zirenak ere bertaratu ziren, eta elkar-teak beste nolabaiteko bidea hartu zuen. Horren adibide ditugu eskubaloiko 11 taldeak, antzerki eta txistu talde bat, punta puntako dantza talde bat,... Eta horretaz gain, elkar-teak urtean zehar herrian ikus daitezkeen ekintza ugariak: Inauteriak, txistu kontzertuak, bertso txapelketak, Dantzari Txiki Eguna, Eskulangintza azoka, Erreterria Dantzan, San Juan bezperako aurrekua, Erromeria Eguna, Dantza suelto txapelketak, antzerkiak, ipuin lehiaketa, Gabon abesti lehiaketa eta tradizioekin lotutako beste hainbat ekintza, Olentzeroa eta Santa Ageda bezperako koplak, besteak beste.

Baina Ereintza ez da ekintza sorta bat. Ez eta amets zaku handi bat. Hori baina askoz ere gehiago da. Beti ere, garaian garaiko gauzekin, herriarekin oso lotuta egon baita Ereintza hasiera hasieratik. Hirurogeigarren hamarkadan, Ereintza izan zen Erreterrian emakumea elkar-tearen parte bezala hartu eta karguetara eraman zuen lehen elkarteak. Frankismoaren garaian, debekatuta zeuden ekintza ugari antolatu eta aurrera eraman zituen elkar-teak. Beraz, garai bakoitzean izandako beharrei Ereintza Elkarteak ederki aurre egin diola esatera ausartzen gara, er-intzatar guzti horien lan eta kemenari esker.

Ereintza Elkarteak zituen txistu eta dantza akademiak izan dira gaur egungo Erreterria Musikalen sortzaile, herriko beste kultur elkar-teekin batera. Eta dantza akademiaren arrakastak, zati handi batean behintzat, Ereintzak izan duen interesean datza. Dantza akademiako ikasleek, hasiera hasieratik izan dute Ereintza Dantza Taldeak garai batean jarri zituen helburu haiez gozatzeko aukera: beste herrietako Dantzari Txiki Egunetan parte hartzea, dantza kalera atera zedin ahaleginak egitea,... Horrekin batera, gaur egungo Udal Txistulari banda berreskuratzeko lan handia egin da Ereintza Elkarteak, urte askoan, elkar-teko txistulariak izan baitziren Udal Txistulari lana bete zutenak, eta gaur egungo banda osa zedin borrokatu zutenak.

Euskal kulturgintzan lan handia egin da Ereintza. Galduta zeuden tradizio ugari berreskuratu eta mantentzeaz gainera, berriak sortzeko ahaleginak egin ditu urte hauek guztietan. Eta baita lortu ere! Askok dira dantza ikastaroen bidez plaza dantzak ikasi dituzten erreterriarrak; eskulangintza azokari esker, artisauen lana balioz-tatzen ikasi duten bisitariak; eskubaloiaz gozaten ikasi duten gazte eta ez hain gazteak...

50 urte herrian eta herriarentzat lanean, gure kultura gal ez dadin, gure kultura balora dezagun. Eta lan horretan jarraitzeko indarra ere badugu oraindik. Etorriko diren belaunaldiak merezi dutelako. Hori da Ereintza Elkartetik pasa den orok izan duen helburua, eta hori da, era berean, gaur egungo ereintzatarren helburua ere. Izan zaretenoi eta zaretenoi, zorionak! ■





Xabin lirastorza. Antzesle handia.



Errege bezpera. 1966-01-05. Pajeak:
Miguel M^a Mitxelena, Gamboa, Guillermo García.
Erregeak: David Gomara,
Miguel M^a Idiazabal, Jesus M^a Gurrutxaga.



1959 urtea: Pilar Etxeberria, Txaro Larraza, María Luisa Gallego,
María Luisa Salaberria, María Antonia Beteta, Puri Lete.



Zamalbide 1966. Eleizaren inaugurazioa.



Ereintza dantza taldea Austrian 2005-08-06.



Santa Ageda koroak. 1999 urtea.



Euskal jaia 1959 urtean. Ezkerretik: Felix Larzabal, Jose Luis Imaz, Luis Iete, Inaxio Oliveri, Manolo Gonzalez.



Errenteria 1965-07-24. Euskal Erromeria. Luis Barrios, Mari Carmen Moron, Izaskun Iza, Juan Jose Rubio, Lourdes Korta, Jose Manuel Perez.



Donostiako hondartzan 1965. Zutik ezkerretik: Jeronimo Barral, Olasagasti, Apaolaza, Arlegi, Juanes, Alcalá, Makazaga. Makurturik: Uria, Morate, Azcarate, Begoña Azcarate, Ansorena, Eusebio, Garcia.



Ereintza igeriketa taldea 2004.



Ereintzako txistulari gazteak. Euskadiko azpitxapeladunak. 1980-12-24.



Kaxkabeltz taldea.



EQUIPO BALON-MANO EREINTZA TEMPORADA 1966-67

Eskubaloia taldea 1966-76 denboraldian. Bengoetxea, Iglesias, Bernardo, Oliveri, Lascaray, Sagaribai, Ansorena, Atxukarro, Gonzalez. Makurturik: Anza, Puente, Sarasola, Izaguirre, Gurrutxaga, Andiano, Altube, Arribas.



EQUIPO EREINTZA 1958/1959 - FRONTON MUN.ERENTERIA



Ereintza eskubaloia taldea. 1958-1959. Zutik: Azkona, Iglesias, Kortajarena, Bernardo, Louvelli, Larzabal. Makurturik: Souto, Uranga, Ansorena, Oskoz.



Ereintza eskubaloia. Nesken taldea. 2007-08 denboraldia.





LEHENDAKARIAK

Zutik ezkerretik: T. Elizalde, X. Etxabe, N. Pérez, J.M. Oliveri, J.J. Zabala, L.M. Yerobi J. Idiazabal, J. Kortajarena, J.M. Izagirre.

Makurturik: J. Oliveri, J.M. Zuzuarregi, M. Rubio. B. Etxabe, J.I. Gurrutxaga, J. Izagirre, P. Ibarguren, J.I. Usabiaga.